



Bittor Esparta, Eneko Carretero, Martin Urrutia, Irantzu Porres, Izaro Azkue eta Irati Zabala Espainiako Bloke Txapelketan Finaletan sartzeko aukerekin asteburu honetan Bartzelonan

- **Mikel Linacisoro, Andoni Esparta eta Itziar Zabala, besteren artean, ez daude parte hartzaileen artean atsedena behar dutelako**

2018ko maiatzak 10. Bloke eskaladako (boulder) Euskal Seleksioko kideek Espainiako Txapelketan parte hartuko dute asteburu honetan Bartzelonako Climbat la Foixarda eskalada kiroldegian. Hauek Gorka Karapeto hautatzaileak zuzenduko dituen neska-mutilak:

Maila nagusian		Gazte mailan	
Bittor Esparta	Irantzu Porres	Eneko Carretero	Izaro Azkue
Eneko Carretero	Izaro Azkue	Martin Urrutia	Irati Zabala
Martin Urrutia	Irati Zabala	Aimar Uson	Haizea Oses
		Borja Bernalte	Ilia Uriarte
		Martzel Vikario	Lucia Arlanzon
		Joanes Esparta	Aitziber Urrutia
		Mikel Cuerda	
		Tasio Martin	

Gazte mailako lehiaketa larunbatean egingo da (hilak 12), eta maila nagusikoa igandean (hilak 13). Izaro Azkue, Irati Zabala, Eneko Carretero eta Martin Urrutia bi lehiaketetan arituko dira.

Bartzelonarako deialdian sartu ez direnen artean hiru baja garrantzitsu azpimarratu behar dira: Mikel Linacisoro, Andoni Esparta eta Itziar Zabala. Espainiako Kopan, eta lehen biek Europako gazte mailetako Kopan ere, lehiatzen ibilita atsedean tarte bat hartzea erabaki dute. Eta haiek bezala, arrazoi desberdinengatik aurren Espainiako Bloke Kopan finaletan maiz ikusi ditugun beste hainbat eskalatzaile ere ez dira izango Bartzelonan.

Maila nagusiko lehiaketari begira, beraz, aukera polita dute Eneko Carretero, Bittor Esparta, Irantzu Porres eta konpainiak Finaletan sartzeko. Gorka Karapeto euskal hautatzaileak dio hori, helburuez galdeginda. Bada, behin finaletan sartzea lortzen badute, dominekin amestea ere libre izango da.

Gazte maileri jartzen die arreta berezia Karapetok: *“Helburu nagusia ahalik eta ongien eta lasaien lehiatzea izango da, ikasitakoa praktikan jartzea. Euskal gazteek oso maila ona dute. Halako eszenario batean, lehiaketa garrantzitsua dela jakinda, ondo moldatzen asmatu behar dute, eta hala egiten badute emaitzak berariaz aterako dira”,* dio. *“Helduetan ere berdin, eta ea favorito askoren faltak zabaldu duen aukera kontrako presio bihurtzen ez den. Bat baina gehiago daude beti finaletan sartzeko zorian ibiltzen direnak, beraz ea aukera aprobetxatzen duten”,* kontatzen du hautatzaileak.



8-14 urte bitarteko gazteentzako Eskalada Topaketak Gasteizen

Euskal Mendizale Federazioak eta [Arabako Rokodromoen Teknikariak](#) elkarrekin Vitoria-Gasteizko Udalaren laguntzarekin 8 eta 14 urte bitarteko gazteentzako eskalada topaketa antolatu dugu maiatzaren 26rako. Gasteizko [Ariznabarrako eskalada murruan](#) burutuko da topaketa, goizez.

9:30etik 13.30era bitartean nahi beste eskalatzeko aukera izango dute gazteek, bai sokaz lagundutako bideetan zein blokeetan. Bide batzuk Top Ropean eskalatuko dira eta beste batzuk sokaburu eskalatzeko aukera ere eskainiko da, beti ere ardura hartuko duten teknikariek lagunduta.

Topaketa parte hartzailea izango da, ez lehiakorra, beraz ez da sailkapenik egongo jardueraren amaieran. Izen emateak 10€ balio du, eta ondorengo esteka bidez osatu liteke:

[IZEN EMATEA](#)



EMF-FVM